

Kostuen egitura

Hasiera batean, gu izango garenez langileak, ez dugu soldatetan dirurik xahutu beharko. Hala ere, denbora aurrera joan ala eta aplikazioa arrakastatsua bada, lehendik aipatu bezala, informatikoak kontratatuko ditugu, eta beraz, horrek kostu bat suposatuko du (beraien soldata). Bestalde, hasieran etxetik arituko gara lanean, eta ondorioz ez dugu alokairurik ordaindu beharko, baina langileen kasuan bezala, aplikazioa arrakastatsua bada, lokal bat alokatuko dugu eta beraz kostu bat gehiago izango dugu; hots, kostu finkoa. Horretaz gain, ordenagailuak lanerako beharrezkoak izango ditugunez (ondasunak), diru kopuru bat hauen erosketara bideratuko dugu. Azkenik, proiektuaren sorreratik izango dugun kostu esanguratsuena, publizitatearena izango da. Izan ere, premia eta laguntza handikoa gerta dakiguke aplikazioa ezagutarazteko.